

# NOLA HITZ EGIN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN INGURUAN

KOMUNIKAZIOTIK ERAIKITZEKO GOMENDIOEN GIDA LABURRA



**EDEKA**

desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien  
euskar koordinakundea  
coordinadora vasca de representantes  
de personas con discapacidad

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA

3

DESGAITASUNA, GAUR EGUN

4

DESGAITASUN MOTAK

5

GOMENDIOAK

6

1. KALITATEZKO KAZETARITZA LANA
2. IRUDI ERAIKITZAILEAK

LABURBILDUZ


9

AUTOEBALUAZIOA

12

BIBLIOGRAFIA

13



# AURKEZPENA

“Hizkuntza da  
pentsamenduen jantzia”  
Samuel Johnson

Desgaitasunarekin eta desgaitasuna duten pertsonekin lotutako gaiak komunikatzeko moduari buruzko gida laburra da aurrean duzun hau. Hori horrela izate hutsa—zu hemen izatea— **zuzentasunez eta doitasunez, eta, gainera, kazetaritzako etikaren oinarrien gainean (inklusioa lan profesionaletik abiatuta sustatuta) komunikatzeko bokazioaren isla da.**

Gida EDEKAK, desgaitasunaren inguruko Euskadiko erakundeak, federazioak eta konfederazioak bateratzen dituen plataformak, prestatu du kide guztien laguntzarekin. Lerro hauetan topatuko duzu (hala espero dugu) desgaitasunaren komunikazioari buruz **ohikoenak diren zalantzekin lotutako erantzuna** eta agian ikuspegia ezbaian jartzen eta aldarazten lagun diezazuket zertzelada batzuk.

Izan ere, desgaitasunari buruzko sentsibilizazio arloan egindako aurrerapena handia den arren, **oraindik ere haien irudi soziala hobetzeko lan handia dugu aurrean**; izan ere, askotan, desgaitasuna duten pertsonen benetako errealitatea erakustea eragozten duten topikoak egoten dira atzean.

Beste nolabait esanda, aldaketa horietan sakontzen jarraitzeko eta horiek guztiak sendotzeko unea da. Zuen laguntzarekin, **(Komunikazioa eta hizkeraren erabilera onetik abiatuta) imajinario berria eraiki ahal izango dugu**. Imajinario berri horretan, desgaitasuna duten pertsonak lehenengo eta behin eta beti pertsona gisa

ikusiko gaituzte, sozialki aitortuak, baloratuak eta barneratuak izango gara, eta benetan gure eskubidea dela eta dagokigun tokia izango dugu.

EDEKA osatzen dugunon izenean, **eskerrik asko gure bidelagun izateagatik.**



# DESGAITASUNA, GAUR EGUN

## 4 miloi lagunek baino gehiagok dugu desgaitasun motaren bat Espainian

**4 miloi lagunek baino gehiagok dugu desgaitasun motaren bat Espainian eta Euskadiren kasuan**, lankide ditugun, aisialdiarekin, ikasketekin, komunitate-lanekin eta abarrekin lotuta harremana dugun **pertsonen % 8,3k** dugu desgaitasun motaren bat. Bizitzako arlo guztietan, ehun lagunetik zortzi gara. Desgaitasuna gu garen horren beste ezaugarri bat da; ez gure nortasuna edo esentzia.

Jarri arreta eta entzun esateko duguna enpatia oinarritzat hartuta. Desgaitasuna dugunok askotariko pertsonak gara: beste edozein pertsonak dituen bezain anitzak diren gaitasunak, aspirazioak, ideiak edo ezagutzak dituztenak. Dena den, badugu baldintza bat komunean: gure bizitzak mugatzen dituzten eta gizarte gisa txirotzen gaituzten estereotipoak eta estigmak gaindituta, **gure erabateko aniztasun horretan ikusgai egoteko beharra**; eta gure iritzia izateko, protagonista izateko eta esan nahi duguna beste batzuek entzuteko premia.

Beste nolabait esanda, beharrezkoa da pertzepzioa aldatzea. Desgaitasun motaren bat dugunok (fisikoak eta, bereziki, burukoak) **egunero aurre egin behar diegun oztopoak desagerraraztea** eta pertsonengana egokitu behar duena gizarte delako (eta ez alderantziz) ulertzea, mugak ezartzen dituen ingurunea delako. Halaxe behar du izan desgaitasuna naturaltasunez eta gustua egiteko asmorik gabe aitortzen duen gizarte-eredu inklusibo honetara gerturatzeko. Izan ere, desgaitasuna aitortzea aniztasuna onartzearen pare da. Eta aniztasuna beti da aberastasunaren pare.

Baina oraindik ere ez dago normalizatua **desgaitasuna duten pertsonen partaidetza gizarteko esparru ugarietan** eta gauza bera gertatzen da komunikabideetan dugun presentziarekin.

## Zuzentasunez hitz egitea garrantzitsua den arren, are garrantzitsuagoa da zuzentasunez pentsatzea.

Ezin dute urteko egun jakinetan bakarrik atera eta “sozializatu” baztertuta egon ohi den elkarrizketa hori. Horren beharrean, egunerokotasunean txertatu beharra dute; hau da, desgaitasuna duten pertsonak iritzi-emaile, aditu, albisteetako lekuko eta abar gisa gehituta. Beste nolabait esanda, gai nagusitzat desgaitasuna duten informazioetatik harago joan beharra dute.

## Komunikabideen botere eraldatzailea

Komunikabideek **ez dute soilik errealitatea izendatzen**: hori beharrean, errealitate hori bera definitzen, aukeratzen eta, horrenbestez, **eraikitzen** dute. Gaitasun horixe bera da, hain zuzen ere, komunikabideek gure gizartean eskubide indibidualen eta kolektiboen alde egin dezaketek ekarpen berezia.

Azken urteotan, zaharkituta geratu den terminologia desagerrarazteko aurrerapenak egin dira eta zenbait hitz (atzeratua, baliaezina, minusbalioetasuna, ezindua, desgaitua...), gutxiesgarriak eta iraingarriak direnak joan dira komunikabideetatik desagertzen eta, komunikabideek duten botere eraldatzaile horri esker, pixkanaka-pixkanaka, baita gizarte osotik ere. Baina jokabide eta esamolde askok oraindik ere errotuta jarraitzen dute eta, ondorioz, oraindik ere beharrezkoa da gogoraraztea adimen-desgaitasuna ez dela gaixotasun bat eta, horrenbestez, adimen-desgaitasuna eta buruko gaixotasuna kontu ezberdinak direla, adibidez.

Nolanahi ere, **zuzentasunez hitz egitea garrantzitsua den arren, are garrantzitsuagoa da zuzentasunez pentsatzea enpatia eta inklusioa oinarritzat hartuta**. Gida honen helburua, hain zuzen ere, hori lortzen laguntzea da.

# DESGAITASUN MOTAK

Desgaitasunarekin lotutako era askotako sailkapenak daude. EDEKA osatzen dugun erakundeok eroso sentitzen gara sei sailkapen mota jasotzen dituen sailkapen honekin.

## 1. Desgaitasun fisikoa

Mugimenduan eta/edo motrizitatean eragiten du. Hone-lakoa izan daiteke:

- **Funtzionala.** Sistema neuromuskularrean eta/edo eskeletikoan du eragina, eta mugimendua zailtzen edo mugatzen du.
- **Organikoa.** Prozesu fisiologikoetan edo barneko organoetan du eragina: digestio-sistema, metabolikoa, endokrinoa, arnas sistema, irazte-sistema, zirkulazio-sistema eta abar.

## 2. Adimeneko edo garapeneko desgaitasuna

Mugak bizitzako arlo batzuetan eragiten ditu: hizkuntza, mugikortasuna, ikasketa, autozainketa eta bizitza independentea, adibidez. Adimen-desgaitasunaz gain, garapeneko desgaitasunak ere jasotzen ditu (Autismoaren Espektroko Nahasmenak, adibidez).

## 3. Zentzumen-desgaitasuna

Zentzumen-egituretan du eragina. Honelakoa izan daiteke:

- **Entzumenekoa.**
- **Ikusmenekoa.**
- **Gor-itsutasuna.**
- **Beste zentzumen batzuetan eragiten duten beste batzuk:** ukimena, dastamena eta usaimena, edo nerbio-sistema.

## 4. Nahasmendu mentalak eragindako desgaitasuna


Nahasmendu mentala emozio, kognizio eta/edo jokabide motako asaldura da eta, bertan, oinarritzko prozesu psikologikoei jasaten dute eragina: emozioak, motibazioak, kognizioak, kontzientziak, jokabideak, pertzepzioak, sentsazioak, ikasketak, hizkuntzak eta abarrek.

## 5. Desgaitasun neurologikoa

Buruko jarduera garrantzitsuak koordinatzen dituzten garuneko zonaldeetan eragina duena da: memoria, ikasketa, mintzamina eta beste batzuk. Jarduera motorretan eta sentsorialetan ere eragina du.

## 6. Pluridesgaitasuna

Era askotako desgaitasunak bateratzen ditu eta, askotan, garapen psikomotorrean eta/edo sentsorialean eskasia eta osasun arloko beste eskasia batzuk eta komunikazioko eta/edo kognizioko zailtasun posibleak izaten ditu pertsona horrek. Horren adibidea litzateke garun-paralisia.



**Horrenbestez, desgaitasun fisikoa, intelektuala edo sentsoriala duten pertsonak, eta nahasmendu mentalak eragindako desgaitasuna duten pertsonak, desgaitasun neurologikoa duten pertsonak eta pluridesgaitasuna duten pertsonak aipatuko ditugu.**

# GOMENDIOAK

## 1. Kalitatezko kazetaritza lana

**Desgaitasuna duten pertsonak gehitzeak gure lana hobetzen du; izan ere, kazetaritzako eta komunikazioko lanak ikuspegi eta iritzi anitzak eskatzen ditu.**

1. Desgaitasuna pertsonen bizitzako beste ezaugarri bat da eta ez luke egiten dituzten gainerako ekarpenak ezkutatu beharko. Horrenbestez, desgaitasuna duten pertsonen partaidetza normalizatuko dugu informazio-agendako esparru guztietan eta kontakizun mota guztietan, eta ez soilik baldintza horrekin lotutako gaietan. Beren gaitasunen baitan dauden esparruetan informazio-iturri, bozeramaile, aditu eta abar gisa hartuko dute parte.
2. Desgaitasuna duen pertsona dela dagokionean bakarrik aipatu beharko da.
3. Hizkuntza naturala eta zehatza erabiliko dugu, babilio-iritzirik gabea, eufemismoak eta txikigarriak ekidinda. Gainera, mugak gainditzearen topikoan ez erortzen saiatuko gara.
4. Desgaitasunak eta horren inplikazioek milaka pertsonaren egunerokotasunean izaten du eragina. Desgaitasunari buruzko informazio-agenda zabalduko dugu, nazioarteko egunez, urteurrenez eta albiste puntualez harago joanda.

5. Ebidentzia zientifikorik ez duten aurrerapen sasizientifikoei buruzko informazioak saihestuko ditugu.
6. Edozein elkarrekintzatan, pertsonarekiko eta haren duintasunarekiko errespetua funtsezko printzipioa da eta, horrenbestez, gai pertsonaletan egokia denean bakarrik sakonduko dugu, eta betiere sentsibilitatea eta enpatia oinarri hartuta.

**Estereotiporik eta aurreiritzirik gabe errealitatea izendatzeak eta ikusgai jartzeak egiten duguna hobetzen du.**

7. Pertsona bakoitzaren baldintzak edo gorabeherak modu argi eta zuzenean aipatuko ditugu, beharrezkoa ez den adjektibaziorik gabe.
8. Beste inplikazio batzuk uste izan gabe, ulertzeko beharrezko xehetasunak eskainiko ditugu. Desgaitasun guztiak ez dira berdinak eta desgaitasuna duten pertsonak ez dute haien aniztasuna ikusezin bihurtzen duen kategoria handi baten azpian geratu behar.



# GOMENDIOAK

**Desgaitasuna duten pertsonak anitzak dira. Denek ez dituzte behar berberak, baina denek merezi dute profesionaltasunez eta enpatiaz tratatzea.**

9. Irisgarritasun unibertsala (fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa) funtsezkoa da elkarrizketa egiteko edo testigantzak jasotzeko.
10. Hizkuntza naturala, soila eta argia erabiliko dugu, elkarrizketatutako pertsonaren adinaren arabera egokitutakoa tonuari eta formari dagokienez eta, gure solaskidearen desgaitasun motaren arabera beharrezkoa denean, itxitako galderak planteatuko ditugu. Adimen-desgaitasuna duten edo hizkuntzarekin lotutako zailtasunak dituzten pertsonari zuzendutako komunikazioetan, irakurketa erraza erabiliko dugu, errazago ulertu ahal izateko edukiak egokituta.
11. Beti pertsona horri hitz egingo diogu lehenengo eta, beharrezkoa denean, laguntza emango dion pertsona bat izateko aukera eskainiko diogu.

12. Gainera:

- a. Aurrez ikus daitekeen eta bere partaidetzan eragina izan dezaketen inprobisazioak ekidingo dituen ingurunea bermatuko dugu.
- b. Ahal dugunean informazioa aurreratuko dugu eta erantzuteko eta erreakzionatzeko denborak errespetatuko ditugu.
- c. kontaktu fisikoa zainduko dugu, pertsona batzuek nahiago izaten dutelako hori saihesti.
- d. Elkarrizketatutako pertsonaren altuerara egokituko gara beharrezkoa denean (pertsona horrek gurpildun aulkia erabiltzen duenean, adibidez).
- e. Haien ekarpenak azpigitulu bidez eskainiko ditugu haien hitzak ulertzea zaila izan daitekeenean.
- f. Eskaintzen dugun informaziorako sarbide, bitarteko eta formatu guztiak haien eskakizunetara egokituko dira.
- g. Dakizun moduan, komunikazioak adierazpenetik hasi eta harrerara eta ulermenera arte biltzen du. Gogoan izan fase horietakoren batean, desgaitasun horrek eragina izan dezakeela.



# GOMENDIOAK

## 2. Irudi eraikitzaileak


**Intimitaterako eskubidea eta duintasunarekiko errespetua pertsona guztien kasuan da aplikagarria. Horrenbestez:**

1. Metodo profesionalen bidez lortutako irudiak bakarrik erabiliko ditugu, betiere dagokion onespenerekin, eta ardura bereziarekin adingabeen kasuan.
2. Inoiz ez dugu errespetagarritasuna eta duintasuna arriskuan jar dezakeen irudirik hartuko edo hedatuko.
3. Aukeratutako irudiek informazioaren araberakoak izan eta desgaitasuna behar bezala ilustratu beharko dute. Hori dela eta, ez ditugu erabiliko irudi jeneralistak edo beste desgaitasun batzuekin lotutakoak.
4. Ez ditugu erabiliko isolamendu soziala, produktibitate eza edo gaitzespena transmititzen dituzten irudiak, horren helburua salaketa egitea denean izan ezik.
5. Gainera, ez ditugu erabiliko irudi dramatikoak, sentsazionalistak eta morbosoak.
6. Ez ditugu gehiegi erabiliko honelakoak erakusten dituzten irudiak: gurpildun aulkia, makuluak, bastoiak edo beste edozein euskarri, edo orientatzeko, mugikortasunerako edo komunikaziorako beste sistemaren bat.

7. Ez diogu protagonismorik emango zeinu-hizkuntzako interpretearen irudiari.
8. Patroi sexistak errepikatzen dituzten irudiak ekidingo ditugu.

**Ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditugu desgaitasuna duten pertsonen aniztasuna, aberastasuna eta gaitasunak ikusgai jartzeko.**


9. Adin guztietako desgaitasuna duten pertsonak erakutsiko ditugu, eta bereziki emakumeak eta neskatilak bistaratuko ditugu.
10. Desgaitasuna duten pertsonen ikuspegi positiboa eta aktiboa erakusten duten irudiak erabiliko ditugu, hautemate hori normaltzeko lagungarriak diren egunerokotasuneko egoerak erakutsita: lana, aisialdia, etxeko lanak, komunitateko bizitza... Horrez gain, gizartearen ustez prestigiotsuak diren arloetan izandako lorpenak bistaratuko ditugu: ekonomia, enpresa, zientzia, kirolak, kultura...
11. Desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen alderdiak erakutsiko ditugu: garraio egokitua, osasun-arreta, lan-munduratzeara eta abar.





# LABURBILDUZ

Hurrengo taulan, desgaitasuna behar bezala komunikatzeko erabili beharko genituzkeen eta baztertu egin beharko genituzkeen hitz eta esamoldeen laburpena topatuko duzue. Pixkanaka-pixkanaka, mundua aldatuko dugu.



	HITZAK EDO ESAMOLDEAK ERABILIKO DITUGU	HITZAK EDO ESAMOLDEAK BAZTERTUKO DITUGU
<b>HIZKUNTZA</b>	Desgaitasuna duen pertsona, autismoaren espektroko nahasmendurik (AEN) gabea, garapen tipikoa duena.	Desgaitua, biktima, gaixoa, baliaezina, atzeratua, ezgaia...
	Desgaitasunik gabeko pertsonak.	Pertsona normalak.
	Mendekotasun-egoeran dagoen pertsona.	Mendekoa.
	Sortzetiko edo jaiotzetiko desgaitasuna duena.	Jaiotzetiko akatsa.
	Hizkuntza naturala eta zehatza erabiliko dugu, bali-irizirik gabea.	Ez ditugu txikigarriak eta eufemismoak erabiliko.
	Ahal den neurrian, aditz hauek jokatuko ditugu: eduki edo izan.	Aldiz, ez ditugu aditz hauek erabiliko: jasan, behartuta egon, pairatu...
	“Inklusio soziala” aipatuko dugu, esamolde horrek inplizituki jasotzen baitu partaidetza.	“Integrazio soziala” esamoldea ekidingo dugu.
<b>LEGEAK</b>	Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko legea.	Mendekotasun-legea.
	Zeinu-hizkuntzaren eta gorrentzako ahozko komunikazioari babesa emateko bitartekoen legea.	Zeinu-hizkuntzaren legea.

# LABURBILDUZ

	HITZAK EDO ESAMOLDEAK ERABILIKO DITUGU	HITZAK EDO ESAMOLDEAK BAZTERTUKO DITUGU
<b>DESGAITASUN FISIKOA</b>	Gurpildun aulkiaren erabiltzailea edo gurpildun aulkia erabiltzen duena.	Gurpildun aulkian etzanda dagoena.
	Desgaitasun fisikoa, organikoa, motorra edo mugikortasun mugatua duen pertsona.	Herrena, paralitikoa, baliaezina.
	Neurri txikiko pertsona edo akondroplasia duena.	Nanoa edo ipotxa.
<b>ADIMEN EDO GARAPEN DESGAITASUNA</b>	Adimen-desgaitasuna duen pertsona.	Gutxitua, atzeratua, adimen urrikoa.
	Down sindromea edo 21 trisomia duen pertsona.	Mongolikoa.
	Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak.	Ikasle berezia edo hezkuntza-arazoak dituena.
	Autismoa duen pertsona, autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duen pertsona edo AENdun pertsona.	Autista edo pertsona autista.
<b>ZENTZUMEN DESGAITASUNA</b>	Pertsona gorra, gorreria edo entzumen-desgaitasuna duen pertsona.	Gorra, gor-mutua.
	Pertsona itsua, itsutasuna edo ikusmen-desgaitasuna duen pertsona.	Itsua.
	Gor-itsutasuna.	Gor-itsutasuna.
	Zeinu-hizkuntza.	Zeinu-lengoaia.
	Itsuetxakurra.	Itsuetxakurra.
	Audiofonoa edo kokleako inplantea.	Sonotonea.



# LABURBILDUZ


	HITZAK EDO ESAMOLDEAK ERABILIKO DITUGU	HITZAK EDO ESAMOLDEAK BAZTERTUKO DITUGU
<b>NAHASMENDU MENTALAK ERAGINDAKO DESGAITASUNA</b>	Osasun mentaleko arazoak dituen pertsona. Nahasmendu mentala duen pertsona.	Gaixo mentala, eroa, burutik egina, psikopata, zoroa.
	Eskizofrenia, depresioa, nahasmendu bipolarra... duen pertsona.	Eskizofrenikoa, depresiboa, anorexikoa, maniakoa, psikotikoa.
	Buru-osasuneko zentroa / eguneko zentroa / errehabilitazio-zentroa.	Eroetxea.
	Ospitaleratzea.	Sartzea, barneratzea, ixtea...
	Gertakari bortitzei buruzko albisteetan, deskribatu beha daitezkeen gertaerak (osasun mentalaren arazo nabarmendu gabe edo faktore bakar bat balitz bezala egin gabe).	Nahasmendu mentalaren eta jokabide bortitzen arteko lotura faltsuak betiketuko dituen informazio partziala ematea edo informazioa isilean gordetzea.
<b>DESGAITASUN NEUROLOGIKOA</b>	Hartutako kalte zerebrala duen pertsona, esklerosi anizkoitza duena, Parkinsonen gaixotasuna duen pertsona.	Kaltetua.
<b>PLURIDESGAITASUNA</b>	Garun-paralisia duen pertsona.	Garun-paralitikoa.



# AUTOEBALUAZIOA

Zure pieza egindakoa, hurrengo galderak lan ona egin duzula ziurtatzen lagunduko dizute:

1. Desgaitasunaren inguruko balio-iritzien ikuspegi objektiboa eta librea proiektatzen da eta ikuspegi paternalista ekiditen da?
2. Terminologiaren eta hizkuntzaren erabilera (aditzak, adjektiboak, txikigarriak, eufemismoak...) zaindu da baliaezintasunaren, infantilizazioaren eta abarren irudia saihesteko?
3. Zehaztasunez deskribatzen al da hizpide den desgaitasun mota edo desgaitasunaren inguruko irudi nahasia transmititzen da?
4. Zaindu al dira gaitasunen, ahalmenen eta lorpenen inguruko proiektzioa eta desgaitasunaren isla?
5. Oztupoak aipatzen direnean, desgaitasunari edo gizarteak horiei aurre egiteko dituen mugei lotuta al daude?
6. Mugak gainditzearen eta heroismoaren topikoan erortzea ekidin da?
7. Ikuspegi barneratzailea eta zeharkakoa eskaintzen al da, desgaitasuna pertsonarekin lotutako espezifikotasun osagarri bat gisa erakutsita?
8. Elkarrizketa egitean edo informazioa ematean, lehentasuna ematen al diozu desgaitasuna duten pertsonen iritzia emateari edo profesionaletan edo laguntzaileetan (senideak edo beste era batekoak) zentratzen zara?




# BIBLIOGRAFIA


ARGITAPENAREN IZENBURUA	ENTITATEA
Decálogo para medios de comunicación.	ASPACE (2020).
<a href="https://comunicaldasaludmental.org/guiadeestilo/recomendaciones-para-periodistas/">https://comunicaldasaludmental.org/guiadeestilo/recomendaciones-para-periodistas/</a>	Espainiako Buru Osasuneko Konfederazioa (2019)
Discapacidad intelectual. Guía rápida para periodistas.	Plena inclusión (2019).
Guía de estilo: sobre discapacidad para profesionales de los medios de comunicación.	CERMI Extremadura (2019).
Sobre discapacidad para profesionales de los medios de comunicación.	Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, eta Desgaitasunari buruzko Errege Patronatua (2019).
Manual de estilo. Cómo abordar el Trastorno del Espectro del Autismo desde los medios de comunicación.	Espainiako Autismoko Konfederazioa (2018).
Guía de estilo: Una propuesta colaborativa para unificar la voz del Movimiento ASPACE.	ASPACE konfederazioa (2018).
Cómo elaborar un Plan de Comunicación en tu ONG.	Fundación Gestión y Participación Social fundazioa (2016).
Guía de buenas prácticas sobre personas con discapacidad.	Osasun eta Gizarte Ongizate Kontseilaria, Andaluziako Junta (2013).
Guía de estilo para abordar la salud mental en los MMCC con responsabilidad.	FEDEAFES (2013).
Orientaciones y recomendaciones sobre mensajes e imágenes acerca de la realidad de las personas destinatarias de la acción social.	Bizkaiko Elkarrizketa Zibileko Mahaia (2013).
Resumen de orientaciones.	Bizkaiko Elkarrizketa Zibileko Mahaia (2013).



# BIBLIOGRAFÍA

ARGITAPENAREN IZENBURUA	ENTITATEA
Informar sobre voluntariado. Guía de estilo para quienes comunican.	Espainiako Boluntariotzaren Plataforma (2011).
Recomendaciones profesionales a los medios en el tratamiento del autismo.	Autismoko Profesionalen Espainiako Elkarte (AETAPI)(2011)
Decálogo para un uso apropiado de la imagen social de las personas con discapacidad.	CERMI (Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien Espainiako batzordea)(2011).
Guía para la elaboración de un plan de comunicación.	Espainiako Boluntariotzaren Plataforma (2008).





# EDEKA

desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien  
euskar koordinakundea  
coordinadora vasca de representantes  
de personas con discapacidad

[www.edeka.es](http://www.edeka.es)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTIZIA Y POLITICAS SOCIALES